



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO OSOKOAK COVID-19AREN ONDORIOZKO APARTEKO ZERGA NEURRIEN BIGARREN PAKETEA ONETSI DAU

- **Likidezia hobetzeko eta ekonomiaren sektore zaurgarrietan eragin negatibo handiagoa prebenitzeko neurriak jasoten dituen foru dekretu arau emoile bi dira.**
- **Dekretuek epe jakin batzuk malgutzeko neurriak eta tributu garrantzitsuetan kenkari fiskalak jasoten ditue.**
- **Osokoak 2017ko Lurraldeko Kontu Orokorra be onetsi dau.**
- **Bizkaiko Batzarretan garraio publiko inklusiboa “bermatzeko” aho bateko adostasuna lortu da.**
- **Gernikan egin dan ohiko osokoaren hasieran minutu bateko isilunea gorde da, pandemia dala eta hil diran guztiak gogora ekarteko.**

(Gernikan, 2020ko bagilaren 10ean). Personen artean gorde beharreko tartearen eta eukiera mugatzearen ganean aparteko neurriak aplikatuz gaur Gernikan alkartu dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokoak, Covid-19a dala eta Aldundiak apirilean eta maiatzean “zergadunen likidezia hobetzeko eta ekonomiako sektore zaurgarrietan eragin ekonomiko negatibo handiagoa prebeniduteko” zerga arloko aparteko neurriak onetsi ditu gaur. Onetsi diran foru dekretu biek (apirilaren 28ko 3/2020 eta maiatzaren 5eko 4/2020), tributu garrantzitsuenen epe jakin batzuk ordaintzeko epeak aldi baterako malgutzeko neurriak eta kenkari fiskalak jasoten ditue.

Gernikako Batzarretxean egin dan osokoa goizeko bederatzietan hasi da, Covid-19a dala eta hildakoak omenduteko minutu bateko isiluneagaz, eta ohi baino batzarkide gitxiagogaz, personen artean gorde beharreko tartea dala eta. Guztira, bakoixaren ordezkariitza kontuan izanda Batzarretako taldeek aukeratu dituen 15 ordezkari politiko dira (7 EAJ-PNV, 3 EH Bildu, 2 PSE-EE, 2 Elkarrekin Bizkaia eta 1 PP). Ganerako kideak “streaming” bitartez jarraitu dabe saioa, eta euren botoa besteen esku itzita hartu dabe parte bozketetan. Mahaian Lehendakaria, Lehendakariorde bat eta Idazkari bat baino ez dira egon.

Biktimak gogora ekarri ostean, osokoa, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak defendidu dituan zerga arloko neurriak, bakoixa bere aldetik, eztabaidatuz hasi da. Guztira lau foru dekretu arau emoile izan dira, horreetako bi araubide komuneko arautegiaren egokitzapena ziran arren. 3/2020 DEKRETUAREN eta bere lau artikuluen bitartez, Bizkaiko Batzarrek argi



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

berdea emon deutsie “pandemiak zergadunengan daukan eragin ekonomikoa leuntzeko eta likidezia hobetzeko hainbat tributu arintzeko eta malgutzeko” Aldundiak martxan jarri dituan neurrien “bigarren paketeari”, Iruarrizagak azaldu dauenez. Helburua, barrikuntzarako inbertsinoko Europako funtsetan aldaketak sartu eta PFEZren (etxebizitza), Soziedadeen Zergaren (barrero inbertiduteko epeak luzatzea) eta Ondare Transmisinoen Zergaren epeak luzatzea da. Bozketan, EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta PP abstenidu egin dira.

Horrez gain, Aldundiak beste neurri pakete bat aurkeztu dau, 4/2020 FORU DEKRETU ARAU EMOILEAREN bitartez, Iruarrizagaren berbetan “ekonomia lehengoratzeko prozesua azkarrago egin daitela bermatzea” bilatzen daben eta Bizkaia Aurrera programea osatuko daben zazpi proposamenagaz. Zazpi artikuluetatik lehenengoan, Aldundiak “%60ko” kenkaria proponiduten dau Soziedadeen Zergan, ekonomia barrindartzeko helburuagaz, baldintza jakin batzuk beteten badira: kontabilitadeko emaitzea %50 murriztu izana eta, adibidez, I+G+B proiektuetan inbertiduteko konpromisoa hartzea.

Aldeko 35 botogaz (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP) eta kontrako 16gaz (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) onetsi dan dekretu horretan, aktiboetarako amortizazio azkartua egiteko eskubidea onartzen da, eta kenkari fiskal barriak jasoten dira, enpleoa sortzeagaitik, mikro-enpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertiduteagaitik edo ohiko etxebizitza barriztetako lanak egiteagaitik (Etxea Plana). Horrez gain, testuak beste onura fiskal batzuk gehitzen ditu, mezenasgo jarduerengaitik eta digitalizazio prozesuengaitik.

Neurri horreen alde agertu dan arren, Talde Bereziak (PP) jarrera “ausartagoa” eskatu deutso Aldundiari, izan be, Amaya Fernándezen eretziz, “ekimen eta erreforma gehiago gauzatzeko marjina dago”.

Elkarrekin Bizkaia taldearentzat, neurrien pakete hori “labur” geratzen da, “gehien daukana saritzen dauelako eta autonomoak eta beharginak baztertzen ditualako”. “Neurriek ez dabe egin beharrekoa egiten”, “betiko errezetak eta betiko ereduagaz” planteetan diralako, hau da, “lehendik ondo dagozanei zergak murriztea”, esan dau Eneritz de Madariagak.

Ildo berean, EH Bilduko Arantza Urkaregiren ustetan, “gogoetea egin barik eta epe laburreko ikuspegiagaz” hartutako neurriak dira. Koalizio abertzalearen ordezkaria kritiko agertu da enpresentzako kenkari batzuen aurrean. Soziedadeen Zergaren aldaketei jagokenez, adibidez, “I+G+B proiektuetan elusino fiskal handiagorako atea zabaltzen dala” esan dau.

Foru Gobernua eusten daben talde politikoak (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), barriz, Aldundiak bultzatu dauen preminazko neurrien bigarren paketearen alde agertu dira, enpresei eta enpleoari eusteko “beharrezkoak”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

diralako. “Inbertsino pribaduari eutsi behar deusagu, inbertsino publikoa mugatua dalako eta legezko mugak ditualako”, adierazo dau Jon Andoni Atutxa jeltzaleak. Bere berbetan, Administrazioa “ezin da ekonomia barrindartzeko iturri bakarra” izan. Berreskuratze edo lehengoratze horren parte handia “ekimen pribadutik etorri beharko da, bere dirua arriskuan jarten dabenaren eskutik, ekonomia ez badogu barrindartzen ez dalako diru-bilketarik egongo”, azpimarratu dau.

Horrez gain, osokoak, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeen abstentzinoagaz, on eretxia emon deutso Gobernu zentralak Balio Erantsiaren ganeko Zergan eta Zerga Berezetan egin eban aldaketen egokitzapenari. Aldaketa horreetako batzuk Covid-19a dala eta ekonomian sortutako ondorio ekonomikoei danon artean aurre egiteko bultzatu ziran. Holan, Bizkaiak bere arautegia egokitu dau, beste batzuen artean, autonomoek eta enpresa txikiek eta ertainek energian daukien kostua murrizteko. Egokitzapen hori, apirilaren 21eko 2/2020 eta maiatzaren 5eko 5/2020 foru dekretuak kontrako boto barik onetsi eta gero egin da.

2017KO LURRALDEKO KONTU OROKORRA ONARTU DA

Osokoak, 2017. urteko Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorra be onetsi dau, aldeko 33 botogaz (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta kontrako 18gaz (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta PP). Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren (HKEE) txostenak, “Aldundiaren eta bere esku dagozan erakundeen ondarearen eta kontabilitadeko fluxuen emaitzen irudi zorrotza” erakusten dauela azpimarratu dau Iruarrizagak. Erakunde fiskalizatzaileak Lurralde Historikoko kontuen ganeko “aldeko” eretxia emoten dau, “ezelango salbuespenik aitatu barik”. Horrez gain, adierazoten dauenez, Aldundiak eta bere esku dagozan erakundeek “errazoiz bete dabe” legezko arautegia.

Oposiziotik ñabardura batzuk egin dira. PPK esan dau penagarria dala Aldundiak ekitaldi hori zorra murrizteko erabili ez izana. Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu taldeek, Aldundiaren esku dagozan soziedade publikoen kontuak eta soziedade horreetako beharginak kontratetako prozesuak kontroletea “gatxa” dala salatu dabe.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, barriz, aurtengo kontuak defendidu ditue, eta euren eretxiz positiboa da Aldundiak “bere kudeaketaren hainbat alderdi zuzendu izana”, epaitegiak berak egindako aholkuetan oinarrituta.

AHO BATEKO ADOSTASUNA GARRAIO PUBLIKO INKLUSIBOA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BERMATZEKO

EAJ-PNV, EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta PSE-EE taldeek euren indarrak batu ditue Talde Bereziaren (PP) aldeko botoa be jaso dauen zuzenketa-eske transakzional batean, “Bizkaiko Foru Aldundiari, bere eskumenen barruan, Bizkaian garraio publiko unibersala eta inklusiboa bermatzeko beharrezkoak diran neurriak egokitzen eta BGParen (Bizkaiko Garraio Partzuergoa) barruan proponiduten jarraitzea eskatzeko”, “ahalik eta epe laburrenean”.

Bizkaibusi jagokonez, Bizkaiko Batzarrek, aho batez, autobus barruan eta geralekuetan sakagailuak instalaletako eskatu deustie Aldundiari, dagon megafonia edo informazinoa emongo dauen audio sistema aktibetako. Horrez gain, Bizkaibuseko markesinetan dagozan irakurketa finkoko informazinarako panelak braille sistemara egokitzea eskatu da.

Eta Bizkaiko garraio publikoan, orokorrean, BGParen barruan “salmenta makinak itsuentzat edo gitxi ikusten daberen personentzat egokitzeko beharrezkoak diran sistemak eta mekanismoak jartea” proponiduteko eskatu jako Aldundiari, eta baita beste neurri honeek be: “braille sistema daukien informazinarako panelak instalaletan metroan; nasatan dagon megafonia egokitzea, metroa ailegetan danean, unidate horren noranzkoaren eta helmugaren barri emoteko; eta, lurrean, urtetako bidea adierazoko dauen banda tximurtsua jartea, eta baita ukipeneko kartelak jartea be”.

PREZIO ZUZENAK BASERRITARRENTZAT

Batzarretako taldeak, barriz, ez dira ados jarri baserritarrek euren produktuengaitik “prezio zuzena” jasotea eskatzeko orduan. Bizkaiko Batzarrek ez dabe onartu Nekazaritza eta Elikadura Behatokiaren barruan “Elikagaien Erreferentziazko Prezio Duina” ezarteko pausoak emotea eskatzen eban EH Bilduren arauz besteko proposamena. Elkarrekin Bizkaia taldea proposamenagaz ados egoan, eta salmenta zuzena indartzeko erreferentzia sartu dau testuan.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK, filosofiagaz ados egon arren, zuzenketa-eske bat sartu dabe, Aldundiak Eusko Jaurlaritzagaz euki beharreko alkarlana “estutzeko eta indartzeko”, erakunde hori dalako nekazaritzako produktuen merkaturatzean eskumenak dituan erakundea, “nekazaritzako produktuen prezio duinen jarraipenean eta defentsan modu koordinatuan behar egiteko”. Azkenean, EH Bilduren ekimena ez da onartu, kontrako 35 boto (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP) eta aldeko 16 (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) izan ditualako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBA EL SEGUNDO PAQUETE DE MEDIDAS TRIBUTARIAS EXTRAORDINARIAS POR EL COVID-19

- Se trata de dos decretos forales normativos con medidas para mejorar la liquidez y prevenir un impacto económico negativo mayor sobre los sectores más vulnerables de la economía.
- Los decretos incorporan medidas de flexibilización transitoria de determinados plazos, y deducciones fiscales en los principales tributos.
- El pleno ha aprobado también la Cuenta General del Territorio de 2017.
- Unanimidad en la Cámara vizcaína para “garantizar” un transporte público inclusivo.
- Al inicio de la sesión ordinaria celebrada en Gernika, se ha guardado un minuto de silencio en recuerdo de todas las personas fallecidas por la pandemia.

(Gernika, a 10 de junio de 2020). El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia, reunido hoy en Gernika con medidas excepcionales de distanciamiento y limitación de aforo, ha aprobado las medidas tributarias extraordinarias que la Diputación presentó en los meses de abril y mayo para “mejorar la liquidez de los contribuyentes y prevenir un impacto económico negativo mayor” sobre los sectores más vulnerables de la economía debido al impacto del Covid-19. Los dos decretos forales aprobados (3/2020, de 28 de abril, y 4/2020, de 5 de mayo) incorporan medidas de flexibilización transitoria de determinados plazos de los principales tributos con carácter transitorio y deducciones fiscales en los principales tributos.

El pleno ordinario celebrado en la Casa de Juntas de Gernika ha arrancado a las nueve de la mañana con un minuto de silencio en homenaje a los fallecidos como consecuencia del Covid-19 y con una presencia menor de junteros y junteras debido a la aplicación de las medidas de distanciamiento social. En total, 15 representantes políticos elegidos por los grupos junteros en función del peso de cada formación (7 de PNV, 3 EH Bildu, 2 PSE-EE, 2 Elkarrekin Bizkaia y 1 PP), han votado por el resto de miembros que han delegado su voto y han podido seguir la sesión a través de “streaming”. La asistencia de los miembros de la Mesa se ha limitado a la Presidencia, una Vicepresidencia y una Secretaría.

Tras el recuerdo a las víctimas, el pleno se ha iniciado con el debate por



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

separado de las medidas tributarias defendidas por el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, en total cuatro Decretos forales normativos, si bien dos de ellos representaban una adaptación de la normativa de régimen común. A través del DECRETO 3/2020, y sus cuatro artículos, la Cámara vizcaína ha dado luz verde a un “segundo paquete” de medidas de la Diputación para “mitigar el impacto económico de la pandemia sobre los contribuyentes, y agilizar y flexibilizar ciertos tributos para mejorar la liquidez”, ha apuntado Iruarrizaga. Se trata de introducir cambios en los fondos europeos de inversión a la innovación y en la ampliación de plazos del IRPF (vivienda), del Impuesto de Sociedades (ampliación de los plazos de reinversión) y del Impuesto de Transmisiones Patrimoniales. En la votación, EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y PP se han abstenido.

Asimismo, la Diputación ha presentado otro paquete de medidas a través del DECRETO FORAL NORMATIVO 4/2020 con siete propuestas que quieren “garantizar que el proceso de recuperación económica se produzca con mayor rapidez”, según Iruarrizaga y que vienen a complementar el Plan Bizkaia Aurrera. En su primer artículo, de un total de siete, la Diputación propone una deducción del “60%” en el Impuesto de Sociedades con el fin de reactivar la economía, siempre y cuando se cumplan una serie de requisitos como la reducción en un 50% del resultado contable y el compromiso de, por ejemplo, invertir en proyectos de I+D+i.

En dicho decreto, aprobado por 35 votos a favor (PNV, PSE-EE Y PP) y 16 en contra (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia), se reconoce el derecho a practicar una amortización acelerada para activos, y se incorporan nuevas deducciones fiscales por creación de empleo, por inversión en microempresas, pequeñas o medianas empresas, y por obras de renovación en la vivienda habitual (Plan Etxea). Asimismo, el texto suma otros beneficios fiscales por actividades de mecenazgo y procesos de digitalización.

Pese a apoyarlas, el Grupo Mixto (PP) ha pedido durante el debate a la Diputación una postura “más valiente”, porque, a juicio de Amaya Fernández, “hay margen para desarrollar más iniciativas y más reformas”.

Para Elkarrekin Bizkaia este paquete de medidas se queda “corto”, porque “se premia a quien más tiene y deja, al margen, a autónomos y trabajadores”. Son “decepcionantes” puesto que se plantean las “recetas de siempre con el modelo de siempre”, o sea, “ayudan a rebajar los impuestos a los que ya están bien”, ha lamentado Eneritz de Madariaga.

En la misma línea, Arantza Urkaregi, de EH Bildu, cree que son medidas que se han tomado “sin reflexión y con una visión cortoplacista”. La representante de la coalición abertzale ha sido crítica con algunas deducciones



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

empresariales. En relación a las modificaciones en el Impuesto de Sociedades, por ejemplo, “se abre la puerta a una mayor elusión fiscal en proyectos de I+D+i”.

Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos), sin embargo, han apoyado este segundo paquete de medidas urgentes de la Diputación, porque son “necesarias” para el mantenimiento de las empresas y el empleo. “Necesitamos mantener la inversión privada, porque la inversión pública es finita y tiene sus límites legales”, ha dicho el jeltzale Jon Andoni Atutxa, para quien la Administración “no puede ser la única fuente de reactivación”. Buena parte de esa recuperación “ha de venir de la iniciativa privada, del que se juega sus cuartos, ya que si no reactivamos la economía, no habrá recaudación”, ha advertido.

Asimismo, el pleno ha dado el visto bueno, con la abstención de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, a la adaptación de cambios que el Gobierno central realizó en el Impuesto sobre el Valor Añadido y en los Impuestos Especiales, algunos para hacer también frente común a las consecuencias económicas derivadas del Covid-19. De esta forma, Bizkaia adapta su normativa, entre otras cosas, para reducir los costes energéticos de trabajadores autónomos y pymes. Esta adaptación se produce gracias a la aprobación, sin votos en contra, de los decretos forales 2/2020, de 21 de abril, y 5/2020, de 5 de mayo.

APROBADA LA CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO DE 2017

El pleno ha aprobado también por 33 votos a favor (PNV y PSE-EE) y 18 en contra (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y PP) la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia de 2017. El informe del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP) expresa la “imagen fiel del patrimonio de la Diputación y de sus entes forales y los resultados de sus flujos contables”, ha destacado Iruarrizaga. El órgano fiscalizador emite en sus conclusiones una opinión “favorable” sobre las cuentas del Territorio Histórico “sin señalar salvedad alguna”. Asimismo, informa de que la Diputación y sus respectivos entes forales “han cumplido razonablemente” con la normativa legal.

Desde la oposición han hecho algunas matizaciones. El PP ha lamentado que la Diputación no hubiera aprovechado ese buen ejercicio para reducir deuda. Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu se han quejado de la “dificultad” para controlar la cuentas de las sociedades públicas dependientes de la Diputación y los procesos de contratación del personal de estas sociedades.

Por el contrario, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han defendido las cuentas de ese año y han visto positivo que la Diputación “haya ido corrigiendo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

aspectos de su gestión” en base a las recomendaciones que le hacía el propio tribunal.

UNANIMIDAD PARA GARANTIZAR UN TRANSPORTE PÚBLICO INCLUSIVO

PNV, EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y PSE-EE han sumado fuerzas en una enmienda transaccional, que ha sido apoyada también por el grupo Mixto (PP), para “instar a la Diputación Foral de Bizkaia a continuar adoptando, en el ámbito de sus competencias, y proponiendo en el seno del CTB (Consortio de Transportes de Bizkaia), cuantas mejoras sean necesarias para garantizar un transporte público universal e inclusivo” en Bizkaia “a la mayor brevedad posible”.

En relación a Bizkaibus, la Cámara vizcaína insta a la Diputación, por unanimidad, a instalar pulsadores dentro de los autobuses y en las paradas con el objeto de activar la megafonía existente o un sistema de audio que ofrezca información. Asimismo se pide que se adapte al sistema braille los paneles informativos de lectura fijos de las marquesinas de Bizkaibus.

Y en el conjunto del transporte público de Bizkaia, se insta a la Diputación a proponer en el CTB, “la incorporación de sistemas y mecanismos necesarios para adaptar las máquinas expendedoras a personas con discapacidad visual o baja visión”, así como “la instalación de paneles informativos dotados de sistema braille en el metro; la reutilización y adaptación de la megafonía existente en los andenes, para que, a la llegada del metro, informe mediante megafonía, de la dirección y destino del mismo; y la incorporación de una banda rugosa en el suelo que indique el camino de salida y que incluya cartelería táctil”.

PRECIOS JUSTOS PARA LOS BASERRITARRAS

Por el contrario, los grupos junteros no se han puesto de acuerdo para que los baserritarras recibiesen un “precio justo” por sus productos. El Parlamento de Bizkaia ha desestimado una proposición no de norma de EH Bildu en la que se pedía dar pasos para establecer un “Precio Digno de Referencia de los Alimentos” en el seno del Observatorio Agroalimentario, algo en lo que estaba de acuerdo Elkarrekin Bizkaia, incorporando en el texto una referencia a potenciar la venta directa.

Por su parte, PNV y PSE-EE, pese a compartir la filosofía, abogaban en una enmienda por que la Diputación “estrechase e intensificase” la colaboración con el Gobierno vasco, como entidad competente de la comercialización de los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

productos agrarios “para que de forma coordinada se trabaje en el seguimiento y defensa de unos precios dignos de los productos agroalimentarios”. Finalmente la iniciativa de EH Bildu ha sido desestimada por 35 votos en contra (PNV, PSE-EE y PP) y 16 a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia).